

## **«Aurkitu Mendibileko Izarrak» PROMOZIOAREN OINARRIAK**

Mendibil Merkataritza Parkeko Jabeen Erkidegoak (helbidea: Almirante Arizmendi kalea 9, 20302, Irun, Gipuzkoa, IFK: H-20818944), «Aurkitu Mendibil Izarrak» promozioa antolatu du; bertan 100 € euro zozkatuko dira opari-txarteletan.

### **SUSTAPENAREN MEKANIKA**

Sustapenean parte hartu ahalko dute 18 urtetik gorako pertsona guztiek, galdera honi erantzunda: Mendibileko zenbat izar daude ezkutatuta merkataritza-guneko Gabonetako apaingarrien artean?

Parte-hartzaileek merkataritza-gunearen webgunera sartu beharko dute [www.centrocomercialmendibil.com](http://www.centrocomercialmendibil.com) helbidean, eta parte hartzeko inprimakian eskatzen zaizkien datuak bete beharko dituzte, bai eta galderari erantzun ere.

Pertsona bakoitzak behin bakarrik parte hartu ahalko du.

Zozketa honetan ezingo dute parte hartu, espresuki, Mendibil Merkataritza Parkeko Jabeen Erkidegoko langileak, ezta ohiko lana zentroan bertan edo establezimenduetan egiten dutenek ere.

### **ZOZKETAREN MEKANIKA**

100 € zozkatuko dira opari-txarteletan, 2022ko urtarrilaren 7an, galderari ondo erantzun dioten guztien artean.

Irabazleari 20 €-ko 5 opari-txartel emango zaizkio, eta Mendibil merkataritza-guneko edozein establezimendutan erabili ahal izango ditu. Opari-txartelak 2022ko urtarrilaren 31ra arte izango dira baliozkoak.

Parte-hartzaileak nortasun-agiria erakutsi beharko du.

### **PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK ETA EZINBESTEKO BETEKIZUNAK**

Sustapenean parte hartzen dutenek guztiz onartuko dituzte oinarri hauek. Ondorioz, oinarrietako punturen bat onartzen ez badute, sustapenetik kanpo geratuko dira, eta Mendibil Merkataritza Parkeko Jabeen Erkidegoak ez du inolako betebeharririk izango parte-hartzailearekiko.

Sustapeneko sariak indarreko xedapenak bete beharko dituzte zergei eta legeei dagokienez.

Mendibil Merkataritza Guneak beretzat gordetzen du edozein unetan sustapen honen baldintzak aldatzeko eskubidea, baita sustapena amaitu aurretik bertan behera uztekoa ere, betiere hori egitea justifikatzen duten arrazoiak badaude.

Irabazleak ezingo dio saria hirugarren bati laga, eta inola ezingo dira sariak eskudirutan kobratu.

Sarien irabazleek baimena ematen diote eta irudi-eskubideak lagatzen dizkiote Mendibil Merkataritza Guneko Jabeen Erkidegoari. Gainera, erkidego horrek haien izen-abizenak, herrialdea eta bizi diren herria eta irudia erabili ahal izango dituzte, merkataritza-gunearen barruko eta kanpoko publizitate-komunikabideetan publiko egiteko. Erabilera horrek, gainera, ez du lortutako sariaz bestelako eskubide berririk sortuko. Irabazleak Mendibil Merkataritza Gunearen Jabeen Erkidegoaren alde hemen aitortu diren eskubideak erabiltzeko baimenik ematen ez badu, ulertuko da irabazle horrek sariari uko egiten diola; beraz, dagoeneko jaso badu, itzuli egin beharko du.